ordainsari-erregistroak eta esperientzia berdintasunaren arloan. Halaber, kontratua gauzatzean ordainsari-diskriminazioa eta jazarpena saihesteko betebeharrak ezartzen dira, bai eta berdintasun-klausulak betetzen direla egiaztatzeko eta kontrolatzeko ere, egiaztagirien, txostenen, bisiten edo auditoretzen bidez. Hala ere, praktikan, ez dago berdintasun-klausulen jarraipen sistematikorik.

Azkenik, araudiak adierazten du aukera dagoela baldintza-agirietan berdintasunari lotutako balorazio-irizpideak eta berdinketa hausteko klausulak sartzeko, eta enpresek betebeharra dutela beren prozeduretan, materialetan eta prestakuntza-ekintzetan neurri espezifikoak txertatzeko, genero-berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioa prebenitzeko.

Kontratazioan eta dirulaguntzetan klausulak txertatzeak 2021etik aurrera izan duen bilakaera ulertzeko, kontuan izan behar dira 1/2022 Legeak, martxoaren 3koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoak berdintasunaren arloan egin dituen lege-aldaketak. Lege horrek kontratazio publikoan eta dirulaguntza publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko nahitaezko eta zeharkako betebeharra ezarri zuen (21. artikulua). Zehazki, harrezkero, berdintasunerako klausulak txertatu behar dira erakunde pribatuekin funts publikoen transferentzia formalizatzeko kontratu, dirulaguntza, hitzarmen edo bestelako dokumentuetan.

Horrenbestez, 2022az geroztik, oinarri edo arauetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko desberdintasunak ezabatzeko neurriak sartu behar dira, bai balorazio-irizpideetan, bai onuradunen betebeharretan, salbu eta txosten arrazoitu bidez justifikatzen bada dirulaguntzak ez diela eragiten genero-desberdintasunak dituzten eremuei edo ez dutela eragiten sexu baten edo bestearen egoeran. Gainera, gutxieneko eduki bat definitu behar da dirulaguntzen araudian, eta, besteak beste, parte hartzeko baldintzak, balorazio-irizpideak (gutxienez baremo osoaren % 5 izan behar dute), betebeharrak eta jarraipen-mekanismoak sartu behar dira.

2021 eta 2024 artean, sailak izendunak ez diren lau dirulaguntza eman ditu, sariak kontuan hartu gabe: hiru dirulaguntza 2022an eta dirulaguntza bat 2024an. Haietatik, eta adierazitako lege-aldaketek eraginda, 2024ko dirulaguntzak soilik aipatzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna, eta jaso egiten ditu martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, ezarritako betebeharrak.

Sailak deitutako sariei dagokienez, zazpi deialdi egin dira 2021-2024 aldian, hiru sariren edizio desberdinetarako. Lehenik eta behin, Adimen Artifiziala sustatzeko eta garatzeko Sariak 2021eko edizioak, bakarrik, ez zuen berdintasun-irizpiderik jasotzen deialdian, salbu eta enpresei lehiatzea debekatzen dien klausula, baldin eta sexu-diskriminazioa egiteagatik zigor penala edo administratiboa badute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera (2021ean indarrean zegoen araua da). Sari horren deialdian, ez zen emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik egon epaimahaian.

Bigarrenik, Euskadiko datu irekiak berrerabiltzeko ideia onenetarako sariak daude. Sailak deitzen ditu hiru foru-aldundiekin eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalekin batera. Sari horren laugarren edizioa 2022an izan zen, eta bosgarrena, 2024an. 2022ko edizioan, hau bakarrik sartu zen: hautagai den pertsona fisikoa edo juridikoa diskriminazioagatik zigortua izan bazen lehiatzeko debekua ezartzen zion klausula. 2024ko edizioan, ordea, emakumeen eta gizonen eta talde gutxituen berdintasuna esplizituki ulertzen da deialdian balio publikoa eta soziala sortzen duen elementu gisa, eta kategoria horri % 17,5eko pisua ezarri zitzaion guztizko puntuen baremoan. Bi edizioetan, epaimahaian sexuaren arabera ordezkartza orekatua egon zen, baina ez zen berariaz jaso ordezkartza orekatuaren klausularik.

2021etik 2024ra, urtero deitu dira Elkarlan sariak, balio publikoa batera sortzeko proiektuak aitortzeko. Edizio guztietan, sari horiek berdintasunaren arloko gutxieneko lege-eskakizunetatik

harago joan dira. Zehazki, 2021az geroztik baloratu da genero-ikuspegia kontuan hartzea proiektu hautagaien diseinuan eta inplementazioan, eta baremoko guztizko puntuazioaren % 8,3 da.

Epaimahaien osaeran sexuaren arabera ordezkariak orekatuak gutxienez % 40koa izan behar duela ulertzen badugu, sarien epaimahaien sexuen arabera ordezkariak orekatua izan da Elkarlan sarien bi ediziotan: 2022an eta 2024an. 2022an, epaimahaiak osatzen zuten hamar pertsonetatik erdia, % 50, emakumeak ziren, eta 2024an, % 60. Hala ere, 2021ean, gizonezkoen ordezkariak % 33koa soilik izan zen epaimahaietan, eta 2023an, % 30ekoa.

Datu orokor gisa, sailak 2021-2024 aldian deitutako sarietarako osatutako zazpi epaimahaietatik lauk sexuaren arabera ordezkariak orekatua izan zuten.

PLAN ESTRATEGIKOAK ETA SEKTORIALAK: 2022az geroztik, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko euskal legediak plan estrategiko eta sektorialetan genero-ikuspegia txertatzeko betebeharrak ezartzen du. Ildo horretan, 2021-2024 aldian, sailean plan estrategiko bat onartu zen: Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa, Ardatz 2030.

Ardatz 2030 Plana 2021ean onartu zen, eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ardatz espezifiko bat du. Horretarako, bi ekintza zehatz ezartzen ditu Enplegu Publikoko Sailburuordetzaren ardurapean: Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. plana onartzea eta ezartzea, eta berdintasun-laborategi bat sortzea. Ardatz planak laneko berdintasunerako I. planetik ateratako ondorioetan oinarritzen du bere diagnostikoa, eta adierazle gisa ezartzen du II. plana onartzea eta berdintasun-laborategia abian jartzea.

Hobetzeko moduko arlo gisa, 2021ean berdintasunerako unitateari txosten puntual bat eskatu zitzaion arren, berdintasunerako unitateko teknikariek ez dute planaren diseinuan, urteko jarraipenean edo ebaluazioan parte hartu.

Jarraian, ADMINISTRAZIO-JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA helburu estrategikoari lotutako erronka nagusiak aurkezten dira, Berdintasunerako 2030 Estrategian zehaztutakoaren arabera.

2. helburu estrategikoa aurreko legealdietako plangintzetako bat bazen ere, diagnostikoan emandako datuek adierazten dute oraindik ere aurrera egiteko beharra dugula saileko administrazio-prozedura guztietan genero-ikuspegia txertatzeko bidean: estatistiketan eta azterlanetan, komunikazioan, arauen ebaluazioan, hautaketa-prozesuetan, zuzendaritza-organismoetan, epaimahaietan, kontratazioan eta dirulaguntzetan, eta plan estrategikoetan eta sektorialetan.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: ERAKUNDEEN GOBERNANTZA-EREDUA ALDATZEA

2030 Estrategiaren 3. helburu estrategikoaren xedea da erakundeen gobernantza-eredua eraldatzea, kudeaketa publiko inklusiboagoa, parte-hartzaileagoa eta emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioekin lerrokatuagoa sustatzeko. Testuinguru horretan, jarraian jasotzen diren hiru ekintza-ildoak ezartzen dira.

6. ILDOA. KOORDINAZIOA, LANKIDETZA ETA INTERNAZIONALIZAZIOA

Maila politikoan, sailak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko koordinazio-egitura nagusia honetan hartzen du parte: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordean. Enplegu Publikoko sailburuordeak eta IVAPekeko zuzendariak ordezkatzeko dute saila batzorde horretan. Batzorde horren helburua da Eusko Jaurlaritzak genero-berdintasunaren arloan egiten dituen ekintzak koordinatzea, eta urtero bildu da 2021etik 2024ra bitartean.

Maila teknikoan, saileko berdintasunerako unitateak aktiboki hartzen du parte emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko eta kudeatzeko hainbat koordinazio-egituratan ere. Lehenik eta behin, saileko berdintasunerako unitateko hiru lanpostu teknikoek Sailarteko Talde Teknikoan parte hartzen dute. Talde hori Eusko Jaurlaritzako sailen arteko koordinazio-egitura da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta Emakundek koordinatzen du.

Gainera, saileko berdintasunerako teknikaria (haren plaza Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitako dago) Saileko Talde Teknikoa kudeatzeaz arduratzen da. Saileko Talde Teknikoa osatzen duten pertsonek saileko zuzendaritzetan, erakunde autonomoetan eta sailarekin lotutako sozietate publikoetan berdintasun-politikak eraginkortasunez ezartzen laguntzen dute. Gainera, Zerbitzu Zuzendaritzako teknikariak erakundearteko talde teknikoan parte hartzen du, administrazioen arteko politikak eta programak koordinatzen diren taldean.

Bestalde, Lan Harremanen Zuzendaritzako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko teknikari-plazaren bidez, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra bultzatzen da, eta Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako berdintasun-plana sustatzen.

IVAPeko berdintasunerako teknikariak, bere aldetik, IVAPeko Berdintasun Batzordea koordinatzen du, eta politikak eraginkortasunez aplikatzen direla ziurtatzen.

2021 eta 2024 artean, koordinazio-bilera ugari egin dira sailaren barrukoak, sailartekoak eta erakundeartekoak, lantalde bakoitzaren beharretara eta berezitasunetara egokituta. Bilera horiek funtsezkoak izan dira inplikaturako eragileen arteko lankidetzak indartzeko eta berdintasun-politiken jarraipen eraginkorra bermatzeko. Plan honen 6. puntuan, kudeaketa-ereduari buruzkoan, maila horiek hartzen dituzten koordinazio-egiturak zehazten dira, eta politika horiek ezartzeko esparru antolatu eta koherente bat ezartzen da.

7. ILDOA. PARTE-HARTZEA, BERRIKUNTZA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA

7. ildoaren ardatza da genero-ikuspegia txertatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea herritarren parte-hartzean, berrikuntzan, gardentasunean eta euskal botere publikoen kontuak ematean. 2018tik, Euskadi Gobernu Irekiako Aliantzaren (OGP) parte da. Kudeaketa publikoa indartzeko, gobernuen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak bultzatzen duen ekimena da OGP. Esparru horretan, baterako ekintza-planak egiten dira, eta haien barruan neurri espezifikoak jasotzen dira, informaziorako sarbidea hobetzeko, herritarren parte-hartzea sustatzeko eta kudeaketa publikoan erantzukizuna bermatzeko. Plan horiek modu independentean ebaluatzen dira, eta teknologia berriak eta praktika berritzaileak baliatzea dute helburu, gobernu-kultura eraldatzeko eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

Aldi horretan, Herritarren Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzak eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak sustatuta, [Gobernu Irekiaren Euskadirentzako 2021-2024 Ekintza Plana](#) onartu zen. Erakundearteko plan bat zen, herritarrekin batera sortua, eta bost konpromiso jasotzen zituen kudeaketa publikoa hobetzeko, gardentasuna handitzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko. Zehazki, mugimendu feministaren eta emakume-elkarleen parte-hartzea sustatu zen. Ildo horretan, Bilboko Emakumeen Kontseiluak foro erregularrean parte hartu zuen, bai eta plana ezartzeko konpromiso-taldeetan ere.

Ildo beretik, sailak partaidetzaren eta berrikuntzaren arloan kudeatzen duen ekimenetako bat iLab-Euskadiko Partaidetzako Berrikuntza Gunea da. Alde batetik, iLab-en prospekzio-zerbitzuak berdintasun-atal bat du ekimen berritzaileen mapan. [Esteka honetan](#) kontsulta daiteke. Bestalde, iLab-en transferentzia-proiektu esperimentalen deialdian 2023an hautatutako lau proiektuetako bat [ELLAS](#) proiektua da, genero-ikuspegitik komunitatearen parte-hartzea indartzea xede duen ekimen berritzailea.

2025ean, [Euskadiko Gobernu Irekirako III. Ekintza Plana 2025-2028](#) onartu zen, Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzak koordinatuta eta abian jarrita. III. plan horretan honela txertatzen da genero-ikuspegia: Bilboko Emakumearen Kontseiluak 3. konpromisoan (Politika publikoak ebaluatzea, kontuak ematea errazteko) parte hartuz.

8. ILDOA. BERDINTASUNAREN IKUSPEGI KONPLEXUAGOA POLITIKA PUBLIKOETAN

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak helburu eta lehentasun berriak ezarri ditu legegintzaldi honetarako, eta berdintasunaren arloan jarduteko esparrua aberasten eta zabaltzen dute. Estrategia horretan sartu diren helburu espezifikoaren artean hauek daude:

Interseksionalitatea. Ekintza publikoetan ikuspegi interseksionala txertatzea, kontuan hartuta emakumeek hainbat diskriminazio-mota izan ditzaketela zenbait aldagairen arabera, hala nola adina, desgaitasuna, jatorri etnikoa eta sexu-orientazioa.

Gizonak eta maskulinitateak. Maskulinitateen ikuspegia txertatzeko ekintzak sustatzea eta eredu maskulino tradizionalen eraldaketan lan egitea.

Euskara biziberritzea. Euskararen sustapena bultzatzea eta hizkuntza-eskubideak bermatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.

Ingurumena eta larrialdi klimatikoa. Genero-ikuspegia txertatzea klima-aldaketaekin eta ingurumena babestearekin lotutako informazioan, prestakuntzan eta tresnetan.

2021az geroztik, ildo horretan sailaren barruan gauzatutako ekimen zehatz bakarra IVAPeK urtero eskaintzen duen “Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna” ikastaroa egitea izan da, eta plan honen trebakuntzari buruzko atalean jasota dago.

Jarraian, ERAKUNDEEN GOBERNANTZA-EREDUA ALDATZEA helburu estrategikoari lotutako erronka nagusiak aurkezten dira, Berdintasunerako 2030 Estrategian zehaztutakoaren arabera.

Gobernantza-eredua eraldatzeko erronka nagusietako bat da herritarren parte-hartze aktiboa eta inklusiboa sustatzea, berrikuntza genero-ikuspegitik sustatuz. Horretarako, elkarriketarako eta lankidetzarako guneak sortu behar dira, mugimendu feministek eta emakume-elkarteek politika publikoen formulazioan eta ikuskapenean eragina izan dezaten.

4.2.2. II. ardatzari (Emakumeen ahalduntzea) lotutako esku-hartzea

Diagnostic orokorra eta erronkak, II. ARDATZARI (EMAKUMEEN AHALDUNTZEA) dagokionez

II. ardatzari (Emakumeen ahalduntzea) lotutako esku-hartzearen helburua da emakumeen autonomia, parte-hartzea eta lidergoa indartzea gizarte-, ekonomia-, politika- eta kultura-eremu guztietan. Sailari dagokionez, horrek, batez ere, emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatuko duten politika publikoak sustatzea dakar, administrazio publikoan enplegu duinak eta berdintasun-baldintzetan bermatuta. Gainera, emakumeek beren eskubideak eraginkortasunez baliatu ahal izatea ziurtatu nahi da. Horretarako, errealitate eta erronka guztiei ikuspegi interseksional batetik heldu behar zaie.

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: POLITIKA PUBLIKOETATIK EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOARI LAGUNTZEA: ENPLEGU PUBLIKO DUINA ETA BERDINTASUN-BALDINTZETAN

Testuinguru horretan, honela ulertzen dugu autonomia ekonomikoa: emakumeek baliabideak, diru-sarrerak, aktiboak eta denbora modu independentean eskuratzeko, kontrolatzeko eta kudeatzeko duten gaitasuna, funtsezko elementua baita herritartasun osoa eta parte-hartze ekitatiboa lortzeko eremu sozial eta ekonomiko guztietan. Sailaren jardueraren testuinguru espezifikoan, eta Berdintasunerako euskal legearen 43. eta 44. artikuluen ildotik, horrek zera dakar: aukera-berdintasuna eta lan- eta ordainsari-baldintzen berdintasuna sustatu behar direla Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura lan egiten duten emakumeentzat.

Helburu estrategiko horren abiapuntua da, sektore publikoan emakumeen ordezkartzean eta parte-hartzean aurrerapausoak lortu diren arren, erronka estrukturalak egoten jarraitzen duela, direla segregazio horizontalarekin eta bertikalarekin lotutakoak, direla enpleguaren behin-behinekotasunarekin lotutakoak, direla ordainsarien desberdintasunarekin lotutakoak, direla lana eta bizitza pertsonala uztartzeko zailtasunarekin lotutakoak. Horregatik, estrategia integral bat planteatzen da, bi ildo nagusitan ekintzak aurreikusten dituen: enplegu duina finkatzea, berdintasun-baldintzetan eta diskriminaziorik gabe (4.1 helburua), eta soldata-arrakala murriztea (4.2). Emakumeek enplegu publikoan duten zeregina indartu nahi da, erantzukizun handiagoko postuetan parte har dezaten sustatu eta lan-baldintza bidezkoak bermatu nahi dira, benebenetako autonomia ekonomikoa izaten laguntzeko.

4.1. ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA LAN EGITEN DUTEN LANGILE GUZTIEN LAN-BALDINTZETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERANTZ AURRERA EGITEA

Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen egoerari buruz eskuragarri dagoen azken diagnostikoa Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrak II. Berdintasun Plana (2021-2024) oinarritzeko egindakoa da, eta 2020ra arteko datuak jasotzen ditu. Diagnostiko hori eta beste iturri batzuk oinarri hartuta, euskal administrazio publikoan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko joera nagusiak eta gainditu beharreko erronkak aurkeztuko ditugu jarraian.

Segregazio horizontala: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak EAEko sektore publikoko langileei buruz egindako azken estatistikak, 2025eko apirilaren 1eko datuekin egindakoak, erakusten du EAEko Administrazioko plantilla, oro har, feminizatuta dagoela. Langileen % 64,1 emakumeak dira, eta, % 35,9, berriz, gizonak. Hala ere, administrazioaren eremuak aztertuz gero, ikusten da, esaterako, Ertzaintzaren plantilla oso maskulinizatuta dagoela: langileen % 19,2 dira emakumeak, eta % 80,8, berriz, gizonak. Eta alderantziz gertatzen da Justizia Administrazioko eta Hezkuntza Saileko plantilletan: oso feminizatuta daude, % 78,5 eta % 72,3 dira emakumeak, hurrenez hurren.

Administrazio Orokorrean, plantillaren sexuaren araberako banaketa orekatuagoa da, emakumeak % 64,8 baitira. Plantillaren sexuaren araberako banaketa kalkulatzeko erabiltzen ditugun datuetan ez dira zenbatu sei hilabete baino gutxiagoko kontratuak dituzten langileak, goi-kargudunak, behin-behineko langileak eta praktiketako funtzionarioak.

EAEko Administrazioan diharduten langileak, eremuaren eta sexuaren arabera. 2025eko apirila:

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	%h	GIZONAK	%h
GUZTIRA	51.966	33.297	64,1	18.669	35,9
Administrazio Orokorra	8.395	5.440	64,8	2.955	35,2
Justiziako langileak	2.657	2.085	78,5	572	21,5
Ertzaintzako langileak	7.194	1.384	19,2	5.810	80,8
Hezkuntzako langileak	33.720	24.388	72,3	9.332	27,7

Iturria: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila. Enplegu Publikoko Zuzendaritza. Langileen estatistika EAEko sektore publikoan

Aurreko datuak 2007tik estatistika beraren serie historikoeekin lotzen baditugu, ikusiko dugu urtetik urtera administrazioaren lau eremuetako plantilletan sexuen arabera ordezkartza orekatuagoa izateko joera orokorra dagoela. Nolanahi ere, oraindik segregazio horizontala egoten jarraitzen du, hau da, okupazio-sektore eta ikasketa-eremu jakin batzuetan emakumeen eta gizonen kontzentrazio desorekatua. Hori, neurri handi batean, genero bakoitzerako estereotipo, rol eta itxaropen sozial bereizietan oinarrituta dago.


Tradizionalki feminizatutako lanbideetan emakumeen edo gizonen kontzentrazioa ere agerian geratzen da funtzionarioen kidegoetako plantillaren datuak sexuaren arabera bereizita aztertzean. Horri dagokionez, Berdintasunerako II. Planerako egindako diagnostiko horretan nabarmentzen zen emakumeen gehiegizko ordezkartza zegoela EAEko Administrazio Orokorreko administrari-eta laguntzaile-lanpostuetan.

Segregazio bertikala: Honi esaten diogu generoaren arabera okupazio-segregazio bertikala: sexu jakin bateko langileen kontzentrazio sistematikoa ezegonkortasun handiagoa, soldata txikiagoa eta onarpen txikiagoa duten lanbideetan. Ildo horretan, aipatu dugun 2020ko diagnostikoak adierazten zuen karrerako funtzionarioen artean segregazio bertikal nabarmena zegoela: karrerako funtzionario emakumeak gutxiegia ordezkartuta zeuden buruzagitza-postuetan, ordainsari handienekoetan, % 44,9 baitziren.

Era berean, A taldea, lanpostu teknikoak biltzen dituen taldea, oso maskulinizatuta zegoen karrerako funtzionarioen artean: karrerako gizonezko funtzionarioen % 31,9k A taldeko postuak betetzen zituzten, eta A taldeko karrerako emakumezko funtzionarioak, berriz, % 20,3 ziren. Aitzitik, C taldea, lan administratiboak biltzen dituen, oso feminizatuta zegoen: % 70,8 emakumeak ziren. Beraz, karrerako funtzionarioen artean segregazio horizontala eta bertikala zegoen aldi berean. Baina diagnostikoak adierazten zuen bitarteko funtzionarioen kasuan ez zegoela okupazio-segregazio bertikalik, buruzagitza-postuak administrazio plantilla orokorra osatzen duten emakumeen proportzioaren antzeko ehunekoan baitzeuden feminizatuta.

Hemen beheko grafiko hau karrerako eta bitarteko funtzionarioak sexuaren eta ordainsari-mailen arabera taldekatetik ateratzen da. Horrela eginda, erantzukizunaren eta ordainsariaren arabera lau lanpostu-mota lortzen ditugu: buruzagitzako lanpostuak, lanpostu teknikoak, administrari-/laguntzaile-postuak eta mendeko lanpostuak. Horrenbestez, 2020an EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan sexuaren arabera bereizketa bertikala ikus dezakegu.

Funtzionarioak, sexuaren eta lanpostu-motaren arabera. 2020:



Iturria: Saileko berdintasunerako administrazio-unitateak egina, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planari buruzko diagnostikoaren datuetatik abiatuta.

Enpleguaren behin-behinekotasuna: Era berean, administrazioan dagoen generoaren araberako soldata-arrakala —hurrengo atalean aipatzen dena— azaltzen duen elementuetako bat enpleguaren behin-behinekotasuna da; izan ere, gehiago eragiten die emakumeei. Ildo horretan, Lan Harremanen Zuzendaritzako estatistika-arloak emandako datuen arabera, 2025eko azaroaren 18an Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen artean bitarteko langileen tasa % 35,9koa zen emakumeentzat, funtzionario gizonen bitartekotasun-tasa baino bost puntu handiagoa (% 30,5koa zen).

Kontziliazio-arrakala: Azkenik, aipatzekoa da lan erreproduktiboaren banaketa desorekatuak, eta bereziki zaintza-lanarenak, eragin desberdina duela EAEko Administrazioari emakumeen eta gizonen bizitza profesionalean. Gainera, desberdintasun horrek ondorioak ditu enpleguaren partzialtasunean eta, ondorioz, generoagatiko soldata-arrakalaren iraunkortasunean. Kontziliazio-arrakalari buruzko datuak plan honen 5. helburu estrategikoan jasotzen dira.

Laburbilduz, euskal administrazio publikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez aurrerapausoak eman baditu ere, oraindik ere egiturazko erronkak daude, lan-baldintzetan erabateko ekitatea izatea eragozten duten elementuak. Segregazio horizontalak eta bertikalak, enpleguaren behin-behinekotasunak, kontziliazio-arrakalak eta emakumeak erantzukizun txikiagoko zeregin eta roletan biltzeak agerian uzten dute oraindik badagoela bidea egiteko erakundean izan badiren desberdintasunak desagerrarazteko. Desberdintasun horiei modu zehatzean helduko zaie Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. planaren bidez, eta helburu izango dute Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen lan-esparruan bene-benetako berdintasuna sustatzeko beharrezko ekintzak eta neurriak ezartzea.

4.2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ORDAINSARI-BERDINTASUNERANTZ AURRERA EGITEA EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN

Emakumeen eta gizonen arteko lan-baldintza desberdinek, aurreko paragrafoan aipatutakoek, administrazio publikoan funtzionarioen artean dagoen generoko soldata-arrakalari eusten laguntzen dute. Horri dagokionez, 2020ko diagnostiko horrek EAEko Administrazio Orokorrean 2020an % 6,7ko soldata-arrakala hauteman zuen, 2.827 euro gordin urtean, batez beste, eta alde hori ezin izan zitzaien egotzi generoagatiko zuzeneko diskriminazioa egoteari. Karrerako funtzionarioen artean, generoagatiko soldata-arrakala % 7,7ra igotzen zen; hau da, karrerako emakume funtzionarioek, batez beste, 3.481,65 euro gordin gutxiago kobratzen zituzten urtean karrerako funtzionario gizonen baino. Bitarteko funtzionarioen artean, soldata-arrakala antzekoa

zen, % 7,5ekoa; hau da, bitarteko emakume funtzionarioek batez beste 3.010,96 euro gordin gutxiago kobratzen zituzten urtean bitarteko funtzionarioek baino.

Administrazioan soldata-arrakala murrizteko, sailak bi tresna ditu. Alde batetik, aurreko atalean aipatu dugun Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana. Eta, bestetik, [Euskadiko soldata-arrakala murrizteko Estrategia 2030](#).

Estrategia hori bost urteko ekintza-planetan egituratzen da. 2021-2025 aldian, indarrean zegoen [Plan Eragileak](#) lau jarduera-neurri ezartzen zituen sailarentzat. Lehenik eta behin, soldata-arrakalaren diagnostikoa Administrazio Orokorrean, haren erakunde autonomoetan, erakundeetan eta enpresa publikoetan. Bigarrenik, telelanak erakundean eta haren zerbitzura dauden langileengan duen eragina aztertzea, kontziliazio erantzukidean sakontzeko. Hirugarrenik, sektore publikoko zuzendaritza-postuetan eta administrazio-kontseiluetan emakumeek duten presentzia aztertzea, eta, azkenik, administrazioko langileak soldata-arrakalan prestatzea. Ildo horretan, IVApek, azken neurriaren arduradunak, soldata-arrakalari buruzko prestakuntza antolatu zuen 2022an. Beste hiru neurriak ez dira 2021-2025 aldian gauzatu, txandakatzeak izan direlako politikarietan eta teknikarietan.

2025aren amaieran 2021-2025 aldirako Plan Eragilearen ebaluazioa egin zen, eta 2026-2030 aldirako III. Plan Eragilea diseinatzeko hasi ziren. Urtero, Euskadin soldata-arrakala murrizteko Plan Eragilearen jarraipen-txostena egiten da. Halaber, Ekintza Plan Eragile bakoitzaren aldiaren amaieran, ebaluazioa egiten da. Bi txosten horiek Emakunderen webgunean argitaratzen dira, eta [esteka honetan](#) kontsulta daitezke.

Jarraian, 4. helburu estrategikoari lotutako erronka nagusiak aurkezten dira: POLITIKA PUBLIKOETATIK EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOARI LAGUNTZEA: ENPLEGU DUINA ETA BERDINTASUN-BALDINTZETAN, Berdintasunerako 2030 Estrategian zehaztutakoaren arabera.

Helburu estrategiko horri lotutako erronka nagusia da Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan lan egiten duten emakumeentzat enplegu publiko duinago baterantz aurrera egitea, berdintasun-baldintzetan. Horretarako, negoziazio kolektiboaren bidez akordioak lortzea izango da erronketako bat, gaur egun dauden egiturazko desberdintasunak (segregazio horizontala eta bertikala, enpleguaren behin-behinekotasuna eta soldata-arrakala, besteak beste) murriztuko dituzten neurriak definitzeko eta horietan aurrera egiteko aukera emango duen prozesu batean.

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEI BEREN ESKUBIDEAK BENETAN BALIA DITZATEN BERMATZEA, IKUSPEGI INTERSEKZIONALETIK

5. helburu estrategikoaren xedea da emakumeek beren eskubideak eraginkortasunez baliatu ahal izatea bermatzea, kontuan izanda gerta daitekeela emakume bakoitzak diskriminazio-mota bat baino gehiagori aurre egin behar izatea. Ildo horretan, Berdintasunerako euskal legeak 3.8 artikuluan adierazten du botere publikoek ikuspegi interseksionala erabili behar dutela beren politiketan. Horrek esan nahi du kontuan hartu behar dutela generoa nola konbinatzen den beste faktore batzuekin, hala nola arrazarekin, jatorriarekin, erlijioarekin, desgaitasunarekin, adinarekin, sexu-orientazioarekin eta migrazio-egoerarekin. Horrela, helburua da diskriminazio aniztunaren aurka borrokatzea, eta emakume guztiek, batez ere aldi berean zailtasun bat baino gehiagori aurre egin behar dietenek, beren eskubideez erabat gozatu ahal izatea ziurtatzea.

Administrazioaren barruan, sailak funtsezko zeregina du administrazioaren egitura osatzen duten emakume guztien eskubideak babesteko eta sustatzeko. Hori bereziki garrantzitsua da zaurgarritasun bikoitzeko egoerei aurre egiten dieten emakumeentzat, hala nola indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat eta desgaitasuna duten emakumeentzat.

Administrazioaren barruan indarkeria matxistaren biktimak babesten direla bermatzeko ekintzak 8. helburu estrategikoari dagokion atalean zehazten dira.

2022ko Euskal Enplegu Publikoaren Legeak desgaitasuna duten pertsonak sektore publikoan sartzeari sustatzen du. Legeak ezartzen du enplegu-prozesuetan eskaintzen diren plazen % 7, gutxienez, pertsona horientzat gorde behar direla, eta helburua dela, arian-arian, pertsona horiek administrazio bakoitzeko giza baliabide guztien % 2 izatea lortzea. Desgaitasunen bat dutenei gordetako plaza horietatik, % 2, gutxienez, desgaitasun intelektuala edo adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat izango dira. Legeak enpleguen eta lan-baldintzen erregularizazioa ere arautzen ditu, eta hautaketa-prozesuak eta lanpostuak desgaitasuna duten pertsonen beharretara egokitzea sustatzen du. Gainera, sarbide bereziko sistema bat sortzen du gutxienez % 33ko mugako desgaitasun intelektuala edo mentala duten pertsonentzat, sektore publikoan sartzeari errazteko.

Era berean, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 53. artikulua ezartzen du administrazio-erregistroetan desgaitasunaren aldagaiari buruzko datuak jasoko direla, eta aukera emango dela zehatz-mehatz jakiteko zer egoeratan eta baldintzatan dauden euskal administrazio publikoetan desgaitasuna duten enplegatuak. Horrela, sexuaren eta desgaitasunaren aldagaiak konbinatu daitezke azterketa espezifikoak egiteko.

Bestalde, otsailaren 28ko 4/2023 Legeak, transen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzekoak, ezartzen du administrazio publikoek langileen eskubideak bermatu eta berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatu behar dituztela enplegu publikoan, ordezkaritza sindikalariekin negoziatu ondoren. Halaber, konpromisoa hartzen dute aniztasunari, sentsibilizazioari eta zenbait eremutan jarduteari buruzko hasierako eta etengabeko prestakuntza emateko. Horrez gain, sarbide-probetan berdintasunari eta LGBTIen diskriminaziorik ezari buruzko ezagutzak sartuko dira, eta dokumentazio administratiboa eta formularioak egokituko dira sexu-orientazioaren, genero-identitatearen eta -adierazpenaren, sexu-ezaugarrien eta familia-egituraren aniztasuna islatzeko.

Gainera, 4/2023 Legeak berretsi egiten du administrazio publikoek lan eremuan LGBTI pertsonentzako tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko duten konpromisoa, eta 14. artikuluan edozein diskriminazio-mota prebenitzeko eta desagerrarazteko neurri zehatzak ezartzen ditu, eta inklusioa sustatzen du zenbait alderditan, hala nola enplegua lortzen, erakunde sindikaletan parte hartzean, sustapen profesionalean eta lan baldintzetan. Horrez guztiaz gain, sentsibilizazio-kanpainak, berdintasun-adierazleak sortzea eta hitzarmen kolektiboetan aniztasun-klausulak txertatzea bultzatuko da, LGBTI pertsonen eskubideekiko errespetua bermatzeko eta lan-ingurune inklusiboa sustatzeko.

Ilido beretik, otsailaren 15eko 4/2024 Legeak, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoak, indartu egiten du euskal administrazio publikoak berdintasunarekin, diskriminaziorik ezarekin eta transexualen eta intersexualen eskubideen babes eraginkorrarekin duen konpromisoa. Lege horrek ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak mekanismoak ezarriko ditu laneko jazarpena eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazioa detektatzeko eta horiei aurre egiteko. Horretarako, prebentzioko langileen prestakuntza sustatuko du eta jokabide horiek prebenitzeko, zuzentzeko eta desagerrarazteko protokolo espezifikoak ezarri eta sexu- eta genero-jazarpeneko protokoloetan txertatuko du. Era berean, sektore publikoan eta pribatuan lan-diskriminazioaren aurkako plan bat garatzeko betebeharra ezartzen da. Trans elkarteetan eta sindikatuen parte-hartzea izango du, eta ekitate-neurriak, eskubideen berri ematea eta lan-hitzarmenetarako proposamenak egingo dira.

Aipatutako arau-esparrua eta XIII. Legealdirako Gobernu Programa betez, 2025ean estrategia orokor bat diseinatzen hasi zen, LGBTIQ+ kolektiboaren erronkei ikuspegi intersektorialetik

heltzeko. Lan Harremanen Zuzendaritzak eta IVA Pek parte hartzen dute estrategia hori administrazio publikoan txertatzeko prozesuan.

Jarraian, 5. helburu estrategikoari lotutako erronka nagusiak aurkezten dira: EMAKUMEEI BEREN ESKUBIDEAK BENETAN BALIA DITZATEN BERMATZEA, IKUSPEGI INTERSEKZIONALETIK, Berdintasunerako 2030 Estrategian zehaztutakoaren arabera.

5. helburu estrategikoak hainbat erronka ditu emakumeen eskubideak bermatzeko modu eraginkorrean eta ikuspegi intersekzionalarekin. Horietako bat da formularioak, dokumentuak eta prozedurak eguneratzea, inklusiboak izan daitezen eta sexu- eta genero-identitateen aniztasuna errespetatu dezaten. Garrantzitsua da, halaber, ulertzea nola gurutzatzen diren sexua, desgaitasuna eta beste aldagai batzuk, emakumeek testuinguru bakoitzean dituzten behar espezifikoak erantzun behar dituzten politika publikoak sortzeko.

Beste erronka bat da EAEko Administrazioan aniztasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko plan bat diseinatzea eta ezartzea. Plan horrek jazarpena eta diskriminazioa detektatzeko eta prebenitzeko mekanismoak izango ditu, langileak gaitzekoak ere bai, eta protokolo espezifikoak ezarriko ditu. Gainera, arreta egokia bermatu behar zaie adineko emakumeei, emakume migratzaileei edo desgaitasunaren bat dutenei, zerbitzu publikoak inklusiboak direla eta haien premiei erantzuten zaiela bermatzeko.

4.2.3. III. ardatzari (Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria) lotutako esku-hartzea

Diagnostiko orokorra eta erronkak, II. ARDATZARI (GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA) dagokionez

2030 Estrategiaren III. ardatzaren helburua da genero-desberdintasunak irautea eragiten duten gizarte-, ekonomia- eta kultura-egiturak eraldatzea. Gure sailak hiru helbururen bidez laguntzen du ardatz horretan: kontziliazio erantzukidea sustatzea administrazioan; sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzea eta genero-ikuspegia txertatzea lan-arriskuen prebentzioan; eta ziurtatzea berdintasuna sartzen dela parte hartzen dugun eraldaketa digitaleko prozesuetan.

6. HELBURU ESTRATEGIKOA: DEMOKRAZIA ZAINZAILAREN ERAIKUNTZARANTZ AURRERA EGITEA

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren helburuetako bat zaintza baloratu eta zaintzari lehentasuna ematen dion gizarte baterantz aurrera egitea da, bizikidetzarako, berdintasunerako eta ongizate kolektiborako funtsezko elementu baita. Ildo horretan, estrategiak gizarte- eta lan-antolamendua eraldatu nahi ditu, pertsonen zaintza, batez ere premia handienak dituztenena, erantzukizun partekatua, agerikoa eta eremu guztietan aitortua izan dadin.

Gure sailean, 6. helburu estrategikoa bi helburu espezifikoren bidez zehazten da. Lehenengoa da lan-denbora eta -espazioak malgutzera eta berrantolatzea, zaintza-erantzukizunak eta lana uztartzea errazteko, parte-hartze ekitatiboagoa sustatuz, gizonezko langileen artean, batez ere. Bigarrena da genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatzea, eta sexu-jazarpena eta

sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko plan bat berariaz garatzea Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan.

6.1. KONTZILIAZIOA ETA ZAINTZEN ERANTZUKIDETASUNA

Berdintasunerako II. Planerako diagnostikoak, 2015-2020 aldiari dagokionez, erakusten du desberdintasun argiak daudela administrazioaren zerbitzura dauden gizonen eta emakumeen artean bizitza pertsonala, profesionala eta familia-bizitza uztartzeko neurriez baliatzeari dagokionez. Horren harira, diagnostikoaren ondorioetako bat da EAEko Administrazio Orokorrean 2015etik 2020ra bitartean eskatutako lanaldi-murritzeta gehienak emakumeek egin zituztela; zehazki, lanaldi-murritzeten % 87,46 emakumeek eskatu zituzten.

Lanaldia murritzeta eskatzeko arrazoiei dagokienez, 2015-2020 aldian zainketei lotutako murritzetak, bai legezko zaintzagarik eta adingabeen zaintzagarik edo bestelako senideen zaintzagarik eskatutakoak, aztertuta, ikusten da % 84,45 emakumeek eskatutakoak zirela. Diagnostiko horretan bertan ikusten da ehunekoak antzekoak direla adingabeak zaintzeko eszedentzia-eskaerei dagokienez. Kasu horretan, arrazoi horrengatik eszedentzien % 88,96 emakumeek eskatu zituzten aldi hartan.

Azkenik, ikusi zen senitartekoak zaintzeko 50 orduko baimena eskatu zutenen artean ere emakumeen ehunekoa handiagoa zela, % 71,5, hain zuzen ere. Telelanaren modalitateari dagokionez, diagnostiko beraren arabera, 2015 eta 2020 artean, telelangileen % 67 emakumeak izan ziren. Hala ere, plantillaren feminizazio-tasa kontuan hartuta (2020an % 65,4koa izan zen), ez da sexuaren araberrako alde nabarmenik hautematen modalitate hori baliatu zutenen artean. Datu horietatik abiatuta, ondoriozta daiteke plantillan emakumeen eta gizonen arteko kontziliazio-arrakala bat dagoela.

2021-2025 aldirako kontziliazio-neurriak arau honetan jasota daude: 83/2010 Dekretua, martxoaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura diharduten funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko dena. Eta Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratuko langileen lan-baldintzak EAEko administrazioko lan-kontratuko langileen 2010-2011 urteetarako hitzarmen kolektiboak arautzen ditu. Indarrean dauden akordio arautzailea eta hitzarmen kolektiboa [Jakinarazi atal honetan](#) kontsulta daitezke.

2023an, estatuan kontziliazio-neurri berri bat txertatu zen: zortzi urtetik beherako seme-alabak edo urtebetetik gorako aldirako harreraren dauden adingabeak zaintzeko zortzi asteko baimena. Baimen hori Langileen Estatutuan txertatu zen, 5/2023 Errege Lege Dekretuan argitaratu ondoren. Halaber, estatuan, 9/2025 Errege Lege Dekretuak jaiotzagarik eta adingabeen zaintzagarik baimena 16 astetik 19 aste ordainutara luzatu zuen guraso bakoitzarentzat. Guraso bakarreko familietan, baimenaren iraupena 32 astekoa da guztira.

Kontziliazio erantzukidearen arloan prestatzeko eta sentsibilizatze, IVA Pek bi prestakuntza eskaini ditu urtero 2021etik 2024ra bitartean. Alde batetik, "Maskulinitateak, gizonak eta berdintasuna" ikastaroa. Ikastaro horretan saileko hamar pertsona prestatu ziren 2021 eta 2024 artean, eta horietatik bi baino ez ziren gizonaek. Bestalde, "Nuevos enfoques en los tiempos: corresponsabilidad y conciliación" ikastaroa. Ikastaro horretan, 2021-2024 aldian ez du saileko inork parte hartu.

Bestalde, 2021-2025 aldian herritarrei eman beharreko arretaren arloan, Herritarrek Artatzeko Zuzendaritzak ordutegi malguak ezartzea sustatu du, batez ere Zuzenean zerbitzuaren bidez. Zerbitzu horrek telefono bidezko eta aurrez aurreko arreta eskaintzen du astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 19:30era, abuztuan izan ezik, abuztuan 8:00etatik 14:30era arte ematen baita arreta.

Gainera, herritarrek eguneko 24 orduetan egin ditzakete kontsultak postontzi elektronikoaren eta Telegram zerbitzuaren bidez.

Horrela, Zuzenean zerbitzura edozein unetan sartzea errazten da, eta, hala, asko sinplifikatzen da izapideen eta kontsulten kudeaketa. Halaber, Herritarrek Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzak administrazioen eta leihatila bakarraren arteko elkarrengarritasuna lantzen jarraitzen du, baita segurtasun elektronikoa hobetzen ere, denborak eta joan-etorriak murrizteko eta pertsonen bizitza pribatua eta lan-bizitza uztartzea sustatzeko.

6.2. ADMINISTRAZIOAN SEXU-JAZARPENA ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA PREBENITZEKO PLAN BAT GARATZEA ETA GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAN

Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen eremuan sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak gertatzen direnean jarduteko prozedura arautzen duen [Aginduaren](#) azken xedapenetako hirugarrenean ezarritakoaren arabera, Administrazioaren eremuko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzio-plana egin eta abian jarriko du, 2021ean Agindua indarrean jarri eta urtebeteko epean. Hala ere, neurri hori oraindik ez da ezarri, eta legegintzaldi honetarako helburu espezifiko gisa jasota egoten jarraitzen du.

2023an, Prebentzio Zerbitzuak prestakuntza espezializatua antolatu zuen sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko plana garatzeko. Prestakuntza hiru saiotan banatu zen. Lehenak prebentzioa genero-ikuspegiarekin integratzea izan zuen aztergai, eta azaldu zen zer dakarren sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioaren kudeaketak, zer garrantzia duen lan-eremuan, eta zer esparru orokor dagoen hura ezartzeko. Bigarren saioak arlo horretako prebentzio-jarduerak modu eraginkorrean planifikatzeko funtsezko alderdiak izan zituen ardatz, eta azpimarratu zen zer elementu izan behar ziren kontuan prebentzio-planaren diseinuan. Eta hirugarren saioan, berriz, prebentzio-neurri espezifikoak aurkeztu ziren, horretarako dauden tresnak eta ekintzak, eta nola aplikatu behar diren. Trebakuntza horretan prebentzio-zerbitzuko langileek, saileko berdintasunerako unitateko teknikariek eta ordezkari sindikalek hartu zuten parte.

Era berean, 2024an Prebentzio Zerbitzua Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Agindua eguneratzen hasi zen, laneo jazarpen moral eta sexuala gertatzen den kasuetan hartu beharreko aurreikuspen-neurriak eta jarduteko prozedura arautzen dituenak. Agindua eguneratzen ari da sindikatuen proposamenetan oinarrituta. Halaber, 2024an, Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen prebentzio-plana eguneratzen hasi ziren. Plan berri horrek genero-ikuspegia jasoko du, nahiz eta dagoeneko zenbait prozeduratan txertatzen ari den. Adibidez, haurdun dauden langileentzako prozedura bereizi bat aurreikusten da. Horrez gain, generoaren eragina kontuan hartzen da egokitzapenak egitean, baita laneo osasuna zaintzeko azterketa medikoetan ere.

Jarraian, DEMOKRAZIA ZAINZAILAREN ERAIKUNTZARANTZ AURRERA helburu estrategikoari lotutako erronka nagusiak aurkezten dira, Berdintasunerako 2030 Estrategian zehaztutakoaren arabera.

Legegintzaldi honetako erronketako bat da neurriak ezartzea enplegu publikoko ordutegiak eta lan-espazioak malgutzeko eta berrantolatzeak. Horren helburua da arduren kontziliazio bidezkoagoa eta partekatuagoa sustatzea zainketetan, arreta berezia jarri gizonezko langileak zeregin horietan aktiboki inplikatzeko. Horrez gain, genero-ikuspegia duen prebentzioaren arloko erronka nagusia da administrazioan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko plana diseinatzea eta ezartzea, eta plana benetan ezartzen eta sentsibilizatzen dela bermatzea.

7. HELBURU ESTRATEGIKOA: BERDINTASUNA EUSKADI BERRESKURATZEKO ETA MODERNIZATZEKO PROZESUAREN PARTE DELA BERMATZEA

7. helburu estrategikoaren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu nahi da eremu teknologikoan eta digitalean. Konpromiso horren helburua da aurrerapen teknologikoei emakumeen eta gizonen artean dauden arrakalak murrizten eta ingurune digitalean herritartasun inklusiboagoa eta bidezkoagoa sustatzen lagunduko dutela bermatzea.

Sailaren jardueraren barruan, testuinguru horretako helburu espezifikoetako bat da bizitza osoan zeharreko inklusio digitala sustatzea. Horretarako, emakume askok hainbat arrazoirengatik — askotariko diskriminazioak barne— duten arrakala digitala murrizteko lan egingo da. Emakumeen eta gizonen arteko arrakala digitalari dagokionez, hiru alderdi bereizi behar dira: sarbide-arrakala, erabilera-arrakala eta konpetentzia digitalen arrakala.


“Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta familiei” inkestak, Eustatek egindakoak, erakusten duenez, EAEko biztanleen % 94,7k Internetarako sarbidea zuen etxetik 2024an. Ehuneko hori aldatu egiten da adin-tarteei erreparatzen bazaie: 15 eta 44 urte bitarteko ia pertsona guztiek dute sarbidea, eta 45 urtetik gorakoen artean % 91,6 dira. Sexuaren arabera bereizitako datuak falta direnez, ezin dugu zehaztu generoaren araberrako arrakala digitala Internetarako sarbidean, adin handieneko pertsonen tartean.

Sarbide-arrakala, gainera, ez da soilik generoaren eta adinaren aldagaietara mugatzen. Testuinguru horretan, Estrategia Digitalaren Zuzendaritzaren ekintzetako bat, ITELAZPIrekin egindako hitzarmen baten bidez kudeatutakoa, periferiako eremuetan kokatutako biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabala hedatzea da. Proiektu horren atal moduan, landa-eremuetan banda zabalak duen hedapenari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita lortu nahi ziren, emakumeengan eta gizonengan zuen inpaktu diferentziala ebaluatzeko. 2023tik, ordea, ez dira datuak sexuaren arabera bereizita jaso, horrelako datuak lortzeko zailtasunak direla eta.

Erabilera-arrakalari dagokionez, Eustaten “Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta familiei” inkestako datuen arabera, EAEn hamabost urtetik gora Internet erabiltzen zuten biztanleen ehunekoa % 89,9 da. Emakumeen kasuan, ehunekoa pixka bat jaisten da batez bestekoarekin alderatuta, % 88,8ra, eta gizonena, berriz, % 91koa izan zen. Baina 15-44 urteko tartean, Interneten erabiltzaileen kopurua ia ehuneko ehunekoa da; eta 45 urteko eta gehiagoko adin-tartean ikusten da beherakada handiena Interneteko erabiltzaileen batez bestekoan, % 84,1ekoa baita.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren jardueraren esparruan, bereziki garrantzitsua da genero-arrakala digitala, administrazio elektronikoaren erabilerrari dagokionez. Eustaten datuen arabera, aurreko joera aldatu egin da, eta, hurrengo grafikoan ikus dezakegunez, 2018tik EAEn administrazio elektronikoa erabiltzen dutenen artean emakume gehiago daude gizon baino. 2024an, administrazio elektronikoa erabili duten emakumeen kopuruak ere (% 64,9) gairitu egin zuen gizonezkoen kopurua (% 63,1).

Administrazio elektronikoa azken hamabi hilabeteetan erabili duten EAEko 16 eta 74 urte bitarteko biztanleak, sexuaren arabera bereizita (%), 2014-2024:



Honako kasu hauetan jotzen da administrazio elektronikoa erabili dela: erabiltzaileak administrazio publikoaren atzetan informazioa bilatzen duenean, inprimakiak baliabide elektronikoen bidez jaisten dituztenean edo izapide zein prozedura oso bat baliabide telematikoen bitartez egiten duenean.

Iturria: *Berdintasunerako unitate administratiboan egina Eustaten datuetan oinarrituta.*

Konpetentzia digitalen arrakala: Administrazio elektronikoa erabiltzen dutenen artean emakumeen ehunekoa handiagoa den arren, Kontsumobidek 2023an argitaratutako “Euskal kontsumitzaileen ohiturak, erabilerak eta gaitasun digitalak” azterlanaren arabera, elkarrizketatutako herritarren ia % 40k uste du administrazio publikoarekin izapideak Internet bidez egitea ez dela erraza edo ez dela batere erraza. Ehuneko hori % 85eraino igotzen da ingurune digitaletik kanpo daudela uste dutenen artean. Talde hori biztanleriaren % 11,7 da, gehienak 55 urtetik gorakoak. Kontsumobideren arabera, segmentu horretan, % 69 emakumeak dira. Beraz, ondoriozta daiteke adinean gora egin ahala gaitasun digitaletan ere genero-arrakala handitu egiten dela.

Teknologia berriak gizarte-diskriminazioko faktore bihurtu ez daitezela, Eusko Jaurlaritzak KZgunea jarri zuen martxan 2001ean. KZgunea herritar guztientzat prestakuntza eta baliabide digitalak eskura jartzen dituzten zentroen sarea da. Eusko Jaurlaritzako Estrategia Digitalaren Zuzendaritzaren mende dago KZgunea, eta 2025ean, 232 zentro zituen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan banatuta. Zentro horietan 106 ikastaro eskaintzen zituen arlo hauetan: enplegua, komunikazioa, administrazio elektronikoa, oinarritzko prestakuntza, aisialdia, ofimatika, programazioa, sare sozialak eta segurtasuna.

2021 eta 2024 artean, KZgunearen erabiltzaileen artean emakume gehiago zeuden gizon baino, adin-tarte guztietan. Bizitza osoan zeharreko inklusio digitalari dagokionez, 2024an, 65 urtetik gorako emakumeak izan ziren erabiltzaile-talde ugariena: KZgunean izena eman zuten pertsona guztien % 12,1 talde horretakoak ziren.

